

#### 4. Irabazi-iturriak

Gure tarifa, 45 eurokoa izango da kontsulta bakoitzeko. (Ordu betean kontsulta amaitutzat emango bat, salbuespenak izan ezik.) Batzuetan, psikologoak uste badu denbora gehiago behar duela, bezeroaren geratu ahal da behar duen beste. Baina, momentu horretan, bezeroak ez ditu ordu extrak ordaindu beharko, denbora gehiago geratzearen erabakia psikologoarena baita. Hau, kasu oso berezietan gertatuko da, langileak boluntarioki egingo dituelako ordu extrak, kobratu gabe. Prezio hau, nahiko merkea da Euskal Herriko beste psikologoaren batz bestekoarekin konparatuz, jende gehienak ordaindu ahal dezan, gazteek batez ere.

Kontsultak ordaintzeko 2 modu daude erabilgarri:

1. modua: Modu hau txanponetan bidezko ordainketa da. Kontsulta bakoitzaren bukaeran ordaindu beharko ditu 45 euroak txanpon eta billeteekin. Beste aukera bat ere badago, astean ordaintzekoa. Pertsona bat astero egun askotan badao eta ez badu nahi egunero dirurik eraman, asteko azken kontsultan ordaindu ahal izango su aste osoko kontsultan prezioa. Honek erosotasuna eskaintzen dio bezeroari, agian ez duelako hainbeste diru egunero eraman nahi eta ez du denbora galdu nahi. Ohiko bezeroa bada eta hileroko etortzen bada, hilabetearen bukaeran ordaindu ahalko ditu kontsulta guztiak. Baina hau bakarrik egin ahalko dute aste guztietan etorri direnek. Adibidez aste bakar batean bakarrik joan bada la, aste horretan ordainduta izan beharko du eta ezin izango du hilabetearen bukaeran ordaindu. Guk nahiago dugu dirua justu ekartzea, erosoago delako. Baina ez badu horrelako aukerarik guregatik ez dago arazorik eta kanbioak eman ahal dizkioagu.
2. modua: Modu hau txartelarekin da. Gure bezero batzuk gazteak direnez, guztiek ez dute txartelik eta horregatik dago txanponekin ordaintzeko aukera, nahiz eta guretzat erosoagoa txartelarekin ordaintzea den ulertzen dugu bezero gazteek ez dutela aukera hori. Baina beste batzuek, txartela dutenek, txartelarekin ordaindu ahal dute eta guretzako erosoagoa da ez dugulako diruarekin ibili behar agian galtzen delako edo ez ditugulako bueltarik. Edozein txartel mota onartzen dugu ordainketa egiteko. Txanponen bezalako sistema izango litzateke. Egunero ordaindu ahal da edozein txartelekin kontsulta bukatzean. Beste guztia txanponen bidezko ordainketa sistema bezalakoa izango litzateke. Hilabetearen bukaeran edo astearen bukaeran ordaintzeko aukera ere dago.

Gure enpresaren prezioa, merkea da beste batzuekin konparatuta, baina oraindik jendea egon ahal da ezin duena ordaindu. Kasu oso berezietan, prest gaude ordainketa kostuak atzeratzeko eta berandutzeko. Pertsona batek frogatzen badu ez duela diru askorik, pertsona horri aukera emango diogu urte bukaeran kontsulta guztiak ordaintzeko. Hau kasu oso berezietan egingo dugu eta ez edozein pertsonari. Aukera hau ematen dugu gure enpresaren helburua bezeroaren ongizatea bermatzea delako.

Urtean izango ditugun diru sarrera guztiak hauek dira:

- lana egiteagatik: 74.200 euro irabazten ditugu. 5 langile ditugu eta langile bakoitzak 7 bezero ditu ( $5 \times 7 = 35$ ). 8 ordu lan egiten du egunero langile bakoitzak eta astean 5 egun ( $35 \times 8 \times 5 = 1400$ ). Urte batean, 46 astez egiten dugu lan, orduan ( $1400 \times 46 = 64.400$ )
- Hitzaldiak egiteagatik: 2400 euro lortzen ditugu. Hilabetero hitzaldi bat egiten dugu. 5 euro ordaintzen ditu pertsona bakoitzak hitzaldira joateko eta 40 pertsona inguru etortzen dira hilabetero. Beraz guztira:  $5 \times 40 \times 12 = 2400$
- Bankuak lehenengo urtean 60.000 euroko mailegua emango digu.
- GUZTIRA:  $64.400 + 2.400 + 60.000 = 126.800$